

## Gizarte Berrikuntza eta Gizarte Ekonomia parez pare

### *Social Innovation and Social Economy face-to-face*

Leire CANCIO ORUETA\*<sup>1</sup>, Eusebio LASA ALTUNA<sup>2</sup>

<sup>1</sup> Mondragón Unibertsitatea

<sup>2</sup> Euskal Herriko Unibertsitatea

**Laburpena:** Master Amaierako Lanean oinarritutako artikulua honetan Gizarte Berrikuntzaren eta Gizarte Ekonomiaren markoak aztertzen dira, bi jakintza-arloetan kokatzen diren autoreen begietatik lehenik.

Marko bakoitzaren motibazioa, definizioa, gaitasun eraldatzailea eta erronkak jasotzen dira. Horrez gain, bi eremu horietan kokatzen diren zazpi adituen egindako elkarrizketa erdi-egituratu bidez lau ardatz horien inguruko iritzia jasotzen da, baita bi markoak elkar elikatze osagaien inguruan ere. Artikuluak ahuleziak identifikatu, eta arlo bakoitzaren eragina areagotzeko beste arloak proposatzen dituen aukeretan jartzen du arreta.

**Gako-hitzak:** Gizarte Berrikuntza, Berrikuntza Soziala, Gizarte Ekonomia, Ekonomia Soziala, eraldaketa, lankidetzeta

**Abstract:** In this article based on the master's thesis, the frameworks of Social Innovation and Social Economy are analysed through the eyes of authors who are situated in both areas of knowledge. The motivation, definition, transformative capacity and challenges of each framework are collected. The views on these four axes are then collected through semi-structured interviews with seven experts from both fields, who were asked about the feedback (or mutual enrichment) components of both frameworks.

The article identifies vulnerabilities and focuses on the opportunities proposed by the other area to increase the impact of each area.

**Keywords:** Social Innovation, Social Economy, transformation, cooperation

**Deskriptore alfanumerikoak:** B55 Social Economics; 035 Social Innovation ; 036 Open Innovation; 038 Government Policy

\* **Correspondencia a/Corresponding author:** Leire Cancio Orueta – [lcancio@mondragon.edu](mailto:lcancio@mondragon.edu) – <https://orcid.org/0000-0002-0539-258X>

**Cómo citar/How to cite:** Cancio Orueta, Leire; Lasa Altuna, Eusebio (2024). «Gizarte Berrikuntza eta Gizarte Ekonomia parez pare», *GIZAEKOA - Revista Vasca de Economía Social*, 21, 67-99. (<https://doi.org/10.1387/gizaekoa.26296>).

Recibido: 8/5/2024; aceptado: 15/5/2024.

ISSN 1698-7446 - eISSN 2444-3107 / © UPV/EHU Press



Esta obra está bajo una licencia  
Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivadas 4.0 Internacional

## 1. Sarrera

Gizarte Berrikuntzaren gaia, edota Gizarte Berrikuntzatik eratorritako praktika edota prozesuak gero eta ugariagoak dira gure artean. Herri-ekimenak betidanik egon dira, eta horien isla dira egungo errealitate anitz. Hala ere, batez ere eremu publikoan, gero eta nagusiagoa dugu Gizarte Berrikuntzarako praktikaren aldarria egitea, baita gizarte eragileetatik sortutako prozesuak erreplikatzeko saiakerak ere. Badirudi Gizarte Berrikuntza marjinetan egotetik «joera nagusi» izatera pasa dela azken urteetan.

Ez da berria Gizarte Berrikuntzaren definizioa argitzeko beharra, Gizarte Berrikuntzan diharduten eragile eta ikertzaileetatik eratorria, Gizarte Berrikuntzaren zakuan oinarri kontzeptual komun sendorik gabe praktika ugari eta desberdinak biltzeko kezkarakin lotuta.

Gizarte Berrikuntza hortaz, ekonomian, edota, hobe esanda, eragile ekonomikoen joko-zelaian proposatutako paradigma berria bilakatu zaigu, gauzak «beste modu batera» egiteko beharretik eratortzen dena. Eremu ekonomikoan badira ere, aspalditik, ekonomiaren beste begirada bat proposatzen duten beste paradigmak, maila kontzeptual, praktikoan zein juridikoan zabaldukoak. Horietako bat, nagusienetarikoa, Gizarte Ekonomiarena da.

Gizarte Ekonomiak nagusia den sistema ekonomiko neoliberalaren aurrean beste eredu bat proposatzen du, sistema kapitalistaren oinarria den kapitalaren jabegoaren ereduaren aurrean alternatiba erreal bat gorpuztuz. Gizarte Ekonomia merkatuaren eta estatuaren artean kokatzen den jarduera ekonomikoa dugu, ez Estatuak, ez administrazio publikoak, ezta enpresa sektore tradizionalak ere erantzuten ez dituen eskaera eta arazoen aurrean gizarte zibil antolatuen erantzunetik jaioa, hain zuzen ere. Has-tapenetan produkzioko langileen kooperatibismoa, elkarri laguntzeko elkarteak eta kontsumo-kooperatibak sortu ziren, sortzen ari zen langile-kla-searen eskaerei erantzuteko. Gerora, Gizarte Ekonomia beste forma batzuk hartzen joan da, hala nola nekazal elkartegintza, integrazio sozialeko kooperatibak, laneratze-enpresak edota beste mota askotako elkarteak.

Egun Gizarte Ekonomiak Europako populazioaren % 6,3<sup>1</sup> ematen dio lana, eta, jarduera ekonomikoaz harago, Gizarte Ekonomiak proposatzen dituen praktikak eta ereduak eredu komunitarioak eraiki nahi dituzten beste arloetako praktika asko zipriztintzen ditu. Gizarte Ekonomiak sozialetik banandu ezin den ekonomiaren adiera du oinarrian, era berean soziala eta politikoa den ekonomiaren adiera bat aldarrikatzeko.

---

<sup>1</sup> 2017an argitaratutako ikerketa, CIRIEC.

Zenbaitetan, bi begirada horiek tentsioan irudikatzen dira, proposatzen dituzten logikek talka egingo balute bezala. Biak dira, jatorrian gizartearen beharretatik jaiotako praktikak, gizartearen beharrak erdigunean jartzen dituztenak. Biak dira, aldi berean, mugimendu sozialetatik eta gizartearen antolakuntzatik sortutako ereduak eta prozesuak bilatzen dituztenak. Badituzte aldeak, ordea.

Master Amaierako Lanean oinarritutako artikulu honek, Gizarte Berrikuntzak eta Gizarte Ekonomiaren marko kontzeptualetatik abiatuta, bi diziplinen ezaugarritzea proposatzen du lau aldagaien inguruan: motibazioa, definizioa, gaitasun eraldatzailea eta erronkak.

Ariketa teorikoa osatze aldera, Gizarte Berrikuntzan zein Gizarte Ekonomian aritzen diren eragile adituen begirada jasotzen da lau aldagai horien inguruan, eta horrez gain, bi markoak elkarelikatzeko elementuen inguruan galdetu zaie. Elkarrizketa horietatik erauzitako ondorio nagusiak aztertzeko Atlas.ti softwarea erabili da.

Amaitzeko, ondorio gisa, hausnarketarako zenbait puntu mahaigaineratzen dira.

Artikuluak modu honetan banatzen da: lehen eta bigarren puntuetan Gizarte Berrikuntza eta Gizarte Ekonomia lau aldagai horien inguruan kokatzen dira; hirugarren puntuan bien arteko alderaketa jasotzen da, aurreko bi puntuen laburpena eginez; laugarren atalean adituen egindako elkarrizketen ondorioak jasotzen dira. Azkenik, bosgarren puntuan, ondorio nagusi gisa, arlo bakoitzaren eragina areagotzeko beste arlotik eratorritzen diren aukerak aurkezten dira.

## 2. **Gizarte berrikuntza**

Honako atalean Gizarte Berrikuntzaren arloaren motibazioa (arloaren justifikazioa), definizioa, gaitasun eraldatzailea eta erronkak zerrendatzen dira, arloko erreferentziako autoreen eskutik.

### **Motibazioa**

Sarritan, Gizarte Berrikuntza aldaketarako nahia (modernitate berri-rantz aurrera egitea) eta zuzentasun eta justizia soziala bermatzeko modu gisa aurkezten da, aktoreen eta, bereziki, aktore pribatuen sormenean oinarritua. Gizarte Berrikuntza hitzak gizarterako begirada-, teknologia- edo negozio-aldaketa adierazten du (Richez-Battesti, Petrella & Vallade, 2012).

Gizarte Berrikuntzaren kokapenaren lausotasuna berrikuntza beraren kontzeptualizazioarekin lotuta dago. Ekonomia Lankidetzak eta Garapene-

rako Antolakundeak (ELGA, OCDE) Osloren eskuliburuan<sup>2</sup>, 1992an, lehengo aldiz berrikuntza-motak deskribatu zituen, teknologia berrikuntzaz gain prozesuen berrikuntza jasoz. Gerora, eskuliburuaren argitalpen berrietan zerbitzuen berrikuntza, marketineko berrikuntza eta antolamendu-berrikuntza jaso zituen. Berrikuntza oso enpresa ikuspegitik lantzen du eskuliburuak, nahiz eta beste berrikuntza motak jasotzeko zailtasunak onartzen dituen eta sektore publikoarentzako berrikuntza ere garrantzitsutzat jotzen du.

Eskuliburuetan jasota egon ez bada ere, Gizarte Berrikuntza historian zehar gauzatzen joan da, erronka sozialei erantzuna emateko asmoz.

Gerora, Gizarte Berrikuntzaren arloan hainbat ikerketa talde eta institutu sortu ziren, hala nola CRISES (Centre de recherche sur les innovations sociales), Kanadan (1986an sortua), edota Vienan 1990an sortutako Vienna-based Zentrum für soziale Innovation,

Gizarte Berrikuntzaren arloak hainbat mugarri izan ditu, eta horietako bat 2003an jaiotako Stanford Social Innovation Review izan zen, Gizarte Berrikuntza aparteko arlo bezala aintzat emateko pausoa eman zuelarik.

1980. hamarkadatik hona, hainbat herrialdetan hedatuz joan zen Gizarte Berrikuntza: Kanada, Britainia Handia, Espainia, Chile, Estatu Batuak... eta hainbat erakunde sortu dira Gizarte Berrikuntza hauspotzeko: sektore publikoaren berrikuntzaren inguruan diharduten NESTA edo The Mind Lab bezalako erakundeak, edota Young Foundation, Britainia Handian (mugarria izango zen «The Open Book for Social Innovation»<sup>3</sup> argitaratu zuen NESTArekin batera 2010ean).

2013an, Europar Batzordeak Guide to Social Innovation-en argitalpenarekin lurraldeetan zeuden hainbat erronka sozioekonomikoei erantzuteko baliagarritasuna eskaini zion.

## Definizioa

Maiz, Gizarte Berrikuntzaren definizio gisa Hubert-en (2010, 24 or.) honako hau topatu dugu: ideia berriak dira (produktuak, zerbitzuak eta ereduak), aldi berean behar sozialak asetzen dituztenak (alternatibak baino modu eraginkorragoan), harreman edo lankidetzaren berriak sortuz. Definizio horren barruan bi alderdi nagusi azaltzen zaizkigu: emaitzaren alderdia (produktu, zerbitzu eta ereduak), eta harremanen alderdia.

<sup>2</sup> OECD/Eurostat (2018), Oslo Manual 2018: Guidelines for Collecting, Reporting and Using Data on Innovation, 4th Edition, The Measurement of Scientific, Technological and Innovation Activities, OECD Publishing, Paris/Eurostat, Luxembourg.

<sup>3</sup> Murray, R., Caulier-Grice, J., & Mulgan, G. (2010). The Open Book of Social Innovation. The Young Foundation.

Victor Garcia-Flores eta Luis Palma Martos ikertzaileek (2019) hiru ikuspegi bereizten dituzte Gizarte Berrikuntza definitzeko orduan:

- **Enpresako Gizarte Berrikuntza:** enpresa pribatua jartzen du kontzeptuaren erdigunean, eta enpresa da Gizarte Berrikuntzaren aktibatzaile nagusia. Ikuspuntu honen barruan kokatzen dira ekintzailetza soziala, erantzukizun soziala, enpresa barruko baldintza sozialen hobekuntza edota enpresen ingurumen inpaktuarekin zerikusia duten jarduerak.
- **Gizarte Berrikuntza eraldatzailea:** gizarte eraldaketarako elementu gisa kokatzen du Gizarte Berrikuntza. Hemen kokatzen dira sektore publikoak eta merkatuak erantzun ezin dituen ekimenak. Komunitateen eta mugimendu sozialek lideratzen dituzten Gizarte Berrikuntzak hartzen ditu bere baitan.
- **Gizarte Berrikuntza integratzailea:** aurreko bi ikuspuntuaren elementuak barne biltzen ditu. Gizarte Berrikuntza mota eta gradu desberdinak hartzen ditu aintzat, eta sektore pribatuak, publikoak edota gizarte zibilak garatuak gerta daitezke.

Enpresako Gizarte Berrikuntzaren baitan sartuko litzateke Sanchis eta Campos (2008) ikertzaileek egiten duten definizioa. Beraien esanetan Gizarte Berrikuntzak erakundearen barruan antolaketa eta kudeaketa modu berriekin zerikusia duten aldagetak sartzea du helburu eta baztertzeko arrisku handiagoa duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea ditu helburu nagusiak, baita garapen iraunkorra bidezko ingurumena babestea eta errespetatzea ere.

Gizarte Berrikuntza eraldatzailearen ikuspegiaren barruan topa ditza-kegu gehien zabalduko definizioak, hala nola Hubert-en aurreko definizioa (2010), ELGA-rena (2011, 15 or.): «pertsonen, komunitateen eta lurraldeen ongizatea finkatzen eta hobetzen duten mekanismo eta arau berriak dira, gizarteratzeko, enplegua sortzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko» edota Europar Batzordearena (2013, 6 or.): «ideia berriak (produktuak, zerbitzuak eta ereduak) garatzea eta ezartzea da, gizarte-beharrak asetzeko, gizarte-harreman berriak sortzeko eta emaitza hobek eskaintzeko». Gizarte-interakzioaren prozesuari eragiten dioten gizarte-eskaerei erantzuteko balio du, gizakiaren ongizatea hobetzera bideratuta.

Multzo honetako adierak aldi berean bi ikuspegi batzen dituzte: bate-tik, Gizarte Berrikuntzak erakundeak, bereziki publikoak, eraldatzeko eta eraginkorrago egiteko duen gaitasunean oinarritzen den ikuspegia (ELGA, Europar Batzordea), eta, bestetik, Gizarte Ekonomia eta Solidarioarekin lotutako autore askoren ikuspegia txertatzen da, eta arreta berezia jartzen diote lurraldeetan sortzen den prozesu kolektiboari, gizartearen eraldake-

tako dinamika batean ase gabe dauden behar sozialak asetzera bideratutakoa (Richez-Battesti *et al.*, 2012). Bigarren ikuspegi honetan CRISES-eko ikertzaileak txertatzen dira. Beraien arabera, erakunde-sistemaren aurrean, Gizarte Berrikuntzak estatus anbigua du, alde batetik ezarritako ordena zalantzan jarriz, baina, bestetik, uneko eraldaketak erregulatuz. Gizarte Berrikuntza, beraz, erakunde-sistemaren eraldaketen balbula moduko bat izan daiteke (Bouchard & Lévesque, 2010, 6 or.). CRISES-ek honela definitzen du Gizarte Berrikuntza: «gizarte-eragileek hasitako esku-hartzea, aspirazio bati erantzuteko, behar bati erantzuteko, irtenbide bat emateko edo aukera bat aprobetxatzeko, gizarte-harremanak aldatzeko, ekintza-esparru bat aldatzeko edo kultura-orientazio berrien proposamenak egiteko».

Gizarte Berrikuntza eraldatzailearen definizioak bi alderdi jasotzen ditu nagusiki: emaitzarena bata; harremanena bestea. Emaitzak azpimarratzen du gizarte beharrei begira dagoela Gizarte Berrikuntza, eta ideia berriak, berrikuntzak dituela jomugan. Harremanen alderdiak aldiz, lankidetzeta eta harreman berriak jasotzen ditu.

Gizarte Berrikuntzaren ikuspuntu utilitaristago batetik (emaitzei begirakoa) Mulganek (2006, 146 or.) proposatzen duen definizioa hau da: «Jarduera eta zerbitzu berritzaileak dira, gizarte arloko helburu nagusia duten erakundeek egiten dituztenak eta gizartearen premia edo erronka bati erantzuteko helburua dutenak». Aurreko Mulganen definizioak emaitzan jartzen du arreta. Aldiz, harreman sozialetan oinarritutako Gizarte Berrikuntzak inklusiorako bidea zabaltzen du, baita indarrean dauden harreman sozialak (potere-harremanak) berregituratzeko (Ayob, Teasdale & Fagan, 2016). Esan genezake hori dugula egungo Gizarte Berrikuntzaren adiera normatiboa.

Sari, prozesu gisa ere deskribatuta agertzen da Gizarte Berrikuntza. Prozesua berez gizarte beharrak asetzera bideratua dago, eta harreman-logika berriak eraiki nahi ditu. Berezko dimentsio politikoak ditu, hortaz (Ayob *et al.*, 2016). Autore desberdinek modu desberdinetan deskribatzen dute prozesua, baina badira, nahiko modu orokorrean onartuak diren sei etapa nagusi (Murray *et al.*, 2010):

- 1) Oharpenak, inspirazioak eta diagnostikoak. Prozesuaren urrats honetan berrikuntzarako beharra mahaigaineratzen duten faktore guztiak txertatzen dira. Bereziki azpimarragarria da fase honetan asegabeko behar horren premiaz ohartarazteko baliagarria den enpatia, eta horren ondorioz aproposak izan daiteken metodologia etnografikoak (metodo kuantitatibo edota estatistikoen aldean).
- 2) Proposamenak eta ideiak: ideien generazioaren urratsa.
- 3) Prototipazioa eta pilotuak. Ideiak praktikan testatuak direneko etapa.

- 4) Mantentzea: Ideia eguneroko praktika bilakatzen denekoa.
- 5) Eskalatzea eta hedapena: berrikuntza hazi eta zabaltzeko erabiltzen den estrategia-multzoa.
- 6) Aldaketa sistemikoa: normalean aldaketa sistemikoak<sup>4</sup> elementu desberdinen elkarrekintza behar du, hala nola mugimendu sozialak, negozio-ereduak, legea eta erregulazioak, datuak eta azpiegiturak, eta pentsatzeko eta egiteko modu berriak eta abar.



*Iturria:* Murray *et al.*, 2010

### **Irudia 1**

Gizarte Berrikuntzaren prozesua

Gero eta gehiago prozesuaren ezaugarri interaktiboa, eta prozesua ebaluatu eta eboluzionatzeko beharra azpimarratzen da (Mulgan *et al.*, 2007). Berrikuntzaren ezaugarri dira, beraz, etengabeko aldaketa- eta ikaskuntza-prozesua behar dira, emaitzarekin batera (Richez-Battesti *et al.*, 2012).

### **Gaitasun eraldatzailea**

Zenbait autorek Gizarte Berrikuntza eraldatzailearen ikuspuntu erradikalago bat aldarrikatzen dute, gizarte desberdintasunen kausei heltzea eskatzen duena, hala nola potere-harreman desorekatuak edota merkatu-ekonomia kapitalista gainditzea. Autore horiek sistema neoliberalak 2008ko

<sup>4</sup> Sistemikoa diogunean elkarri lotutako berrikuntza multzo bati egiten zaio erreferentzia, bakoitzak bestearengan eragina duena, berrikuntza duena, bai sistemaren zatieta, bai elkarrekin lotzeko moduetan.

krisiaren ondotik Gizarte Berrikuntza panazea bezala erabiltzeko arriskuaz ohartarazten dute. Oinarriztat hartzen dute Moulaert, Maccallum eta Hillier-en (2013) definizioak Gizarte Berrikuntzaren definizioan gizarte-bazterkeriako egoerei aurre egiteko helburua kokatzen du, egoera horiek sustatzen dituzten indar kontserbadoreei aurre egiteko.

Ikuspuntu horretatik, ahalduntze kolektiboa ezinbesteko kontsideratzen da harreman sozialak eraldatzeko, eta horretarako gaitasunak lantzea eta gobernantza-eredua elementu gakoak dira.

Lasak (2018) honako ezaugarriak aipatzen ditu Gizarte Berrikuntzaren gaitasun eraldatzailea ahalbidetzeko:

- Berrikuntzaren izaera: Gizarte Berrikuntza eraldatzailea gizartea eraldatzera bideratuko da, kapitalismoari aurre egiteko. Horrek esan nahi du bere helburua gizarte-eredu berri bat eraikitzea zuzendutako eraldatze-prozesuak abian jartzea dela.
- Berrikuntzaren dimentsio soziala: Gizarte Berrikuntza Eraldatzailearen azken helburua ez da bete gabeko edo gaizki estalitako behar sozialei aurre egitea, ezta esku-hartze sozialaren arloan bakarrik jardutea ere. Helburua gizartea modu integrean eraldatzea da, eredu bat eraikiz garapen alternatiboa, planetaren etorkizuna ziurtatzeko, haren biodibertsitate ekologikoa, kulturala eta linguistikoa bermatzeko eta mundu parekide, bidezko eta solidarioa eraikitzeko.
- Berrikuntzaren egituraketa. Beste garapen-eredu alternatibo, sendo eta posible bat eraiki nahi badugu, eraldaketa-prozesu hori antolatu behar dugu. Helburu hori lortzeko, elkartasuna, integrazioa eta talde-lana bultzatuko dira.

## **Erronkak**

Gizarte Berrikuntzaren erronkak, Hubert-en (2010) hitzetan, Gizarte Berrikuntzaren dimentsioekin erlazionatuta daude (hiru enfoke aipatzen ditu, gizartea eskariaren edota beharren enfokea, gizarte erronken enfokea eta sistemaren aldaketaren enfokea). Horien baitan, hauek dira proposatzen dituen erronkak:

### *Finantzazioa eta eskalatzea*

Gizarte eskariaren baitako Gizarte Berrikuntzaren kasuan, erronka nagusienak finantzaziorako sarbidea, arrisku-kapitalera sarbidea edota gizarte enpresetara saltoa ematearekin lotuta daude. Izan ere, Gizarte Berrikuntza horiek askotan behetik gorakoak dira, profesionalak ez diren



erakundeek bultzatutakoak, eta, horren ondorioz, ez errepikagarri edota ez errentagarri bezala kontsideratuak dira maiz, eta hortaz, ez dute beharrezko interesa eurenganaten.

### *Gobernantza eta koordinazioa*

Maila politikoan, ez daude rol horretan gaineko ardura duten erakunde edota rol instituzionalak, ez dago instituzionalizatuta, eta Gizarte Berrikuntzak duen zeharkako izaerak zaildu egiten du politika mailako artikulazioa. Aktoreen arteko harremanen kasuan aldiz, oraindik ere siloetan funtzionatzen segitzen da, sektoreen arteko ezagutza, konfiantza eta komunikazio faltarekin. Hain zuzen ere, behar horri erantzuna emateko asmoz, bitartekari papera jokatu duten gorantz doan industria bat dago.

Gizarte Berrikuntzari gizarte eronken enfoketik begiratzen badiogu, gobernantza-maila eta korrante-politikoaren integrazio handiagoa beharrezkoa da, baita politika egiteko moduak birpentsatzea ere. Bestalde, gobernantza gizarte-harremanak berritzeko giltzarrietako bat komunitatean integrazio-maila aurreratua izatea da. Alde batetik, horrek eskatzen du komunitatearen barruko desberdintasun ekonomikoaren maila muturrekoa ez izatea (Zurbano, 2008). Azkenik, gizarte zibiletik sortzen diren gobernantza-ekimen sozialki berritzaileek aliantza eta sare multieskalarrak garatu behar dituzte.

### *Berrikuntza*

Gizarte Berrikuntzak mugimendu sozialen ezagutza eta praktikaz elikatu behar da, mugimendu izaera indartzeak «berritzeko baimena» sortzeko aukera ematen digu. (Espiau, 2017). Gero eta gehiago, berrikuntzak aparteko egituretan kudeatu behar dira, eguneroko presio eta erakundeetatik aldentuz (Mulgan *et al.*, 2007).

Berrikuntzarekin lotuta, metodoak garrantzitsuak dira: berrikuntza ez dator une jakinetatik, ezta norbanako solteengatik ere. Berrikuntza kudeatu, babestu eta elikatu behar da (Murray *et al.*, 2010). Honen inguruan, berrikuntzan fokatutako finantzazioa, berrikuntza sustatuko duten marko politiko publikoak (adibidez, zerbitzu publiko nagusietan erakunde publiko, pribatu eta irabazi asmorik gabekoentzako espazioak, erregelak apurto eta ideia berriak testatzeko), Gizarte Berrikuntzako azeleragailuak edota ikerketa eta ezagutza eta praktikak partekatze guneak. (Mulgan *et al.*, 2007).

### *Aintzatespen legala eta kulturala*

Azaleratzen den beste erronketako bat da Gizarte Berrikuntzak gizarte beharrei erantzuna emateko egiten duen ekarpena balioan jartzea. Balioan

jartze hori alde batetik alde legalarekin dago lotuta (ekintzaile edota aktore sozialen estatusa) eta, bestetik, dimentsio kulturalarekin, berrikuntza negozio mailakoa eta teknologiarekin lotuta kontsideratzearekin.

### *Gaitasunak eta hezkuntza*

Gizarte Berrikuntzaren gaitasun, entrenamendu eta garapenaren beharra ezin da giza baliabideen ikuspegitik bakarrik begiratu, horri gehitu behar zaio «lanbide» bat bezala ez kontsideratzearen alderdia (eta curriculum definitu bat osatzeko zailtasuna). Gizarte Berrikuntzaren zeharkako izaerak mugak gainditzeko abilezia eskatzen du, sektore, interes eta politika-eremu desberdinak gainditzeko. Gizarte Berrikuntzan diharduten gehienak arituz ikasten dute, errore-saiakuntza bidez, beraiek sortzen dituzten sareen laguntzarekin. Begirada horrek hezkuntza-sistemaren diziplinartekotasuna sustatzea eskatzen du, oinarrizko ikerketa eta ikerketa aplikatuaren arteko elkarrekintza areagotu, kontu-emate zorrotzagoa eta garapen teknologikoen eragin sozialen ulermen sakonagoa (aukera eta erronka terminoetan, garapen moduen analisi kritikoarekin batera). Ikuspegi horretatik, ikasteko modu parte hartzaile eta aktiboek gero eta garrantzia handiago hartzen dute.

### *Datuen eta neurketa-sistemen gabezia*

Zalantzarik gabe, inpaktuaren neurketa da Gizarte Berrikuntzaren erronka nagusietako bat. Merkatuaren eremuan, eskala, merkatu-kuota edota irabaziak ditugu ohiko adierazle, baina Gizarte Berrikuntzaren eremuan arrakastaren adierazleak gezurtatuak dira, baita emaitzetara iristeko erremintak ere (Murray *et al.*, 2010). Beste autore batzuk, inpaktua neurtzeko eta Gizarte Berrikuntzaren alderdi kulturalera hurbiltzeko metodo kualitatiboak proposatzen dituzte (Espiau, 2017). Gizarte Berrikuntzak definizio argia ez izateak neurketa-sistemaren parametroak definitzeko zailtasunak sortzen ditu.

Gizarte Berrikuntzari gizarte erronken enfoketik begiratzen badiogu, neurketak are konplexuagoak dira «outcome<sup>5</sup>» dimentsioa gehitzen diogulako. Gizarte erronken eskalan, soziala eta ekonomikoaren arteko muga lausoa da, eta adierazle ekonomikoei ingurumen eta gizarte adierazleak batu behar zaizkio.

---

<sup>5</sup> «Output» vs «Outcome». «Output»-ak «Outcome»-ak lortzen laguntzen duten jarduerak dira. «Outcome»-ak aldiz, gizabanakoentzako, familientzako, taldeentzako edo komunitateentzako jarduera horiek duten emaitzak dira.

### 3. Gizarte ekonomia

Gizarte Berrikuntzarekin egin dugun bezala, Gizarte Ekonomiaren kasuan ere, motibazioa, definizioa, gaitasun eraldatzailea eta erronkak aurkeztuko dira segidan.

#### Motibazioa

Gizarte Ekonomiaren testuingurua ekonomiaren beraren berdefinizioan kokatzen da. Ekonomia merkantila aberastasun-iturri bakarra kontsideratzeak ekonomiaren konplexutasuna alde batera uztera behartzen du. Batetik, merkatu-ekonomia hein handi batean birbanaketan oinarritzen da, eta merkatua ez den ekonomiak paper garrantzitsua du birbanaketa horretan. Azkenik, elkarrekikotasunean oinarrituta dauden ekintzak bazter batean uzten ditu (gertuko ekonomiaren bereizgarria dena). Hau da, Gizarte Ekonomiaren kokapena erabat lotuta dago ekonomiak berak gizar-tean duen ulerkerarekin.

Gizarte Ekonomiaren dimentsioak aipatzean hiru dimentsio aipatzen ditu Jimenez-ek (2016):

- Dimentsio ekonomikoa: ekoizpen, banaketa, truke, kontsumo eta post-kontsumo prozesuak artikulatzen dira, osagarriagoak, eta bidezkoagoak diren elkarrenganako truke-sareak sortuz, pertsonaren funtsezko beharrak asetzeko.
- Dimentsio politikoa: Marjinazioa edota eskusio egoerak definitzen dituzten testuinguru instituzionalak eta potere-testuingurua. Asmoa da potere eta testuinguru instituzional berria sortzea, birbanaketa, elkarrekikotasuna, berdintasuna eta ekitatea oinarri izango dituen eredu ekonomikoa ahalbidetzeko. Bizitzaren mesedetan egongo den erakundetze berria sortzea du helburu.
- Ekologikoa: Ingurumenarekin lagunkoiak izango diren harremanak txertatu prozesu ekonomikoetan, harreman antropozentrikoak gainditu eta ekonomia biosferari irekia dagoen prozesu gisa irudikatuz (ekoizpena, banaketa, kontsumoa, post-kontsumoak prozesu antropikoak sortzen dituzte, entropia altu zein baxukoak).

#### Definizioa

Gizarte Ekonomiaren definizioan ere hainbat aldaera topatzen ditugu, irabazi asmorik gabeko eremutik datozen definizioen begiraden ñabardurak sortuak batez ere. Hala ere, azken urteetan Gizarte Ekonomiak (eta,

gero osatuko dugun bezala, Solidarioak) garapen teoriko zabala izan du, hainbat enpresen praktiken gainean izandako teorizazioaren ondorio (Pérez de Mendiguren & Etxezarreta, 2014).

Gizarte Ekonomiaren definizioak erakunde ekonomiko nagusien definiziotik abiatuta jaio dira, zenbait herrialdeetan lege izaera hartuz. Hala ere, azken urteetan, definizio malguago baten alde egin da, forma juridikoaz harago, bertako eragileen portaeretan arreta jartzeko aukera emanez.

Gizarte Ekonomiaren definizio nagusi orokor adosturik ez dagoen arren, bai daude ordea zenbait onartutako dimentsio:

- Dimentsio teorikoa: ekonomiaren paradigma alternatibo bat eraikitzeko asmoa duena.
- Eraldaketa sozialaren dimentsioa: Gizarte Ekonomia prozesu demokratiko eta parte hartzaileengana bide bezala aurkezten du.
- Erakunde mailakoa: demokrazian, autogestioan eta jabego kolektiboan oinarritutako eredu.

Gizarte Ekonomia forma anitzek osatzen duten errealitate ekonomikoa da, beren eskaera sozialak zein beharrei erantzuna emateko era organizatibo desberdinek eratua. Era berean, Gizarte Ekonomiek eredu bat baino gehiago dituzte Europan: Suedian eta Danimarkan, esaterako, kooperatiba-mugimenduak lotura estua izan zuen herritarren garapenarekin, parte-hartze sozialarekin, herritarren konpromisoarekin eta berdintasunaren eta demokraziaren sustapenarekin. Beste herrialde batzuk, Erresuma Batuak eta Irlandak, tradizio filantropikoa izan dute, eta charitiak eta komunitate sektorea nabarmendu dira. Beste tradizio historiko batzuk ekintza publikoaren «subsidiarotasun» printzipioan oinarritu dira, batez ere Elizaren inguruko ekimenei dagokienez, Alemania, Belgika, Irlanda eta Herbehereetan. (Chaves Ávila & Monzón Campos, 2018).

Hain zuzen ere, erronka da Gizarte Ekonomiaren definizio batera iristeko, multzo koherente batean batzea erakunde guzti horiek.

Hirurogeita hamarrekota hamarkadaren amaieran, CNLAMCA izeneko plataforma bateratu bat osatu zuten Frantziako elkarte, mutualista eta kooperatiba-mugimendu nagusiek, eta 1980ko ekainean argitaratu zuten Gizarte Ekonomiaren Gutuna. Bertan, Gizarte Ekonomia honela definitu zen: «sektore publikokoak ez dira, funtzionamendu eta kudeaketa demokratikoa dute, bazkideek jabetza- eta banaketa-erregimen berezia egiten dute, eta ekitaldiko soberakinak erakundearen hazkunderako eta bazkideentzako eta gizartearentzako zerbitzuak hobetzeko erabiltzen dituzte» (Monzón, 1987).

Berrikiago, Europako Gizarte Ekonomiako mugimenduak ordezkatzeko dituzten (CEP-CMAF, lehena, eta Social Economy Europe<sup>6</sup>, gaur egun) Gizarte Ekonomiaren ezaugarri bereizgarriak garatu dituzte eta Gizarte Ekonomiaren Printzipioen Gutuna onartu: 1) kapitalaren gaintik pertsonaren eta objektu sozialaren nagusitasuna, 2) atxikimendu boluntarioa eta irekia, 3) beren kideek egindako kontrol demokratikoa, 4) bere kide erabiltzaileen interesen eta on komunaren arteko bat egitea, 5) elkartasun eta ardura printzipioen defentsa eta aplikazioa, 6) potere publikoen artean kudeaketa-autonomia eta askatasuna eta 7) soberakin gehienak garapen iraunkorreko helburuen, kideentzako intereseko zerbitzuen edo interes orokorraren alde erabiltzen dira. (Rincón Roldán & López Cabrales, 2021).

Ikuspegi zientifikotik, nazioarteko definizio operatibo, koherente eta bateratua ezarri da, esparru juridikoan eta sistema estatistikoetan erabiltzeko modukoa (Chaves Ávila & Monzón Campos, 2018, 13 or.):

Formalki antolatutako enpresa pribatuen multzoa, erabaki-autonomia eta atxikitze-askatasuna dutenak, merkatuaren bidez bazkideen beharrak asetzeko sortuak, ondasunak eta zerbitzuak sortuz, ziurtatuz edo finantzatuz, eta bazkideen artean mozkinak edo soberakinak banatzeko eta erabakiak hartzeko aukerarik ez dutenak, bazkide bakoitzak emandako kapitalarekin edo kotizazioekin zuzenean lotuak. Boto bana dagokio bazkide bakoitzari.

Gizarte Ekonomiako erakundeak, Chaves Ávila eta Monzón Camposen arabera (2018):

1. Entitate pribatuak dira;
2. Formalki antolatuta daude, hau da, berezko nortasun juridikoa dute;
3. Erabakitzeko autonomia dute;
4. Bazkideek atxikitzeko askatasuna dute, hau da, ez dira nahitaez afiliatzeakoak;
5. Bazkide erabiltzaileen artean mozkinak edo soberakinak banatzea, halakorik bada, ez da haien kapitalaren edo kotizazioen araberakoa, baizik eta bazkide horiek erakundearekin egiten duten jardueraren araberakoa;

---

<sup>6</sup> Declaration finale commune des organisations européennes de l'Économie Sociale, CEP-CMAF, 20.6.2002.

6. Pertsona, etxe edo familien beharrak asetzeko adinako jarduera ekonomikoa egiten dute. Kapitalarekin eta diruaz bestelako baliabideekin lan egiten dute, ez kapitalarekin;
7. Erabaki demokratikoa duten erakundeak dira.

Gizarte Ekonomiak bi azpisektore handi biltzen ditu: a) merkatuaren edo enpresaren azpisektorea eta b) merkatukoak ez diren ekoizleen azpisektorea. Lehenengo azpisektorea, funtsean, kooperatibek, mutualitateek eta beste gizarte-enpresa batzuek osatuko lukete. Enpresa horiek beren baliabideak batez ere merkatuan ondasunak eta zerbitzuak salduz lortzen dituzte, eta bigarren azpisektorea, berriz, nagusiki etheen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta beste tradizio zientifiko batzuetan «nonprofit» sektorea (hirugarren sektorea, irabazi asmorik gabeko sektorea) izenekoak osatzen dute.

Gizarte Ekonomiaren kontzeptua esparru akademikoan sartu eta gizarte-praktika hutsa izateaz gain, hainbat herrialdetako corpus juridikoan instituzionalizatu da, horietako asko europarrak. Espainia izan da Europan Gizarte Ekonomiari buruzko lege bat onartu duen lehen herrialdea (3/2011 Legea, Gizarte Ekonomiari buruzkoa).

Maiz Gizarte Ekonomiaren definizioa estuki lotua dago enpresa formekin, baina Gizarte Ekonomia ere lurraldearen garapenari dagokio, tokiko eta lurraldeko garapen ekonomikoaren mugimenduetan ikusten den bezala. Gizarte Ekonomiak funtzionamendu ekonomikoko eredu berriekin esperimentatzea helburu duten jardueri ere dagokie, hala nola langileen funtsa, trukerako tokiko sistemak eta gizarte-txanponak, bidezko merkataritza, jardueren ekonomikoaren bidezko integrazioa, mikrofinantzak, edota finantza solidarioak (Bouchard & Lévesque, 2010).

## **Gaitasun eraldatzailea**

Gizarte Ekonomia, gizarte eraldaketarako, esperimentaziorako, berrikuntzarako eta gizarte eraldaketarako eremu pribilegiatua da (Bouchard & Lévesque, 2010), eta Gizarte Ekonomia esfera soziala esfera ekonomikoarekin lotzeko modua dela esan dezakegu.

Horrela, Gizarte Ekonomiak desberdintasun ekonomiko eta sozialak txikitu eta garapen eredu alternatiboa eraikitzeko gaitasuna izan dezake (Lasa, 2018).

Tokian-tokian, Gizarte Ekonomiaren ekimenak ugaritzen eta hedatzen ari dira, eta, aldi berean, egiturazko aldaketak eragiten ari dira bizi-baldintzetan, enpleguan, lurraldean eta politika publikoen planifikazioan eta inplementazioan. Horregatik esan dezakegu Gizarte Ekonomiaren kontzeptua finkatzen ari dela Gizarte Berrikuntzaren kontzeptuaren aldagai gisa.

Hori ez ezik, Gizarte Ekonomia Gizarte Berrikuntza horren eragile ere izan daiteke (Richez-Battesti, Petrella eta Vallade, 2012).

Lasak (2018) honako alderdiak azpimarratzen ditu Gizarte Ekonomia-  
ren gaitasun eraldatzailea indartzeko:

- (1) Ereduek neoliberal globalizatzaileari aurre egiteko lurraldetasuna (deslokalizazioari aurre egin), euren artean saretu, elkartu eta arriskuen aurrean babesteko gaitasuna, malgutasuna (Gizarte Ekonomia kideen malgutasuna egoerei aurre egiteko, autokudeaketa gaitasuna areagotzeko gaitasuna) eta garapen komunitarioa (irabazien zati bat tokiko ekonomia eraldatzaile bideratuz).
- (2) Tokiko burujabetzari ekarpena egin (autokudeaketan oinarritutako proiektu propioa sustatu bertako eragileekin batera).
- (3) Ereduek sozioekonomiko propioarekin bat egitea. Horrela, Gizarte Ekonomia mugimendu sozialak hauspotzeko erreminta bilakatu daiteke, eta aldi berean enpresaren ekoizpen, banaketa, zerbitzu, hezkuntza eta kudeaketaren protagonista izan. Bestetik, Gizarte Ekonomia enpresa handien kapital-metaketa saihesten ahalegintzen da, eta tokiko beste eragileekin batera eraldaketa-proiektu soziorpolitikoa babesteko du.
- (4) Ekintza soziala bultzatzea. Beren irabazien bidez ekintza soziala babestu dezakete (onura fiskalen truke). Alderdi horrek garrantzi berezia du dauden tokiaren garapen ekonomiko, sozial eta kulturalari bultzada emateko gaitasuna duelako. Bestalde, tokiko garapen hori bideratzeko bertako biztanle eta mugimendu sozialek funtsen banaketan erabakimena izatea garrantzitsua izango da.

Gizarte Ekonomia-aren begiradari, Ekonomia Solidarioaren begiradak dimentsio politikoa gehitzen dio, ekonomia bersozializatu eta berpolitizatu nahian (Pérez de Mendiguren & Etxezarreta, 2014) Gizarte Ekonomia duen gabezia batekin lotuta: ez du zalantzan jartzen ekonomia, eta merkaturaren eraginkorrak izateko bokazioan jartzen du indarra, isomorfismoarekiko aukera zabalduz. Gaintitu nahi du ekonomia-aren bisio formalista (arau jakinen inguruan funtzionatzen duen arloa) bisio sustantiboago batekin.

Bestalde, ikuspegi horrek ekonomia gizartearen barruan kokatzen du, eta beste mugimendu sozialekin elkar elikatzen da, hala nola Ekonomia Ekologikoa edo Ekonomia Feminista. Ekonomia Solidarioak duen dimentsio politikoa dagokionez, postura desberdinak daude: lan-merkatutik kanpo geratu diren pertsonen laneratzean indarra jartzen duenak; egungo merkaturaren barruan azpi-sistema edota azpi-sistemen alde egiten dutenak, eta egungo eredu ekonomikoa gaintitzea proposatzen dutenak.

## Erronkak

Gizarte Ekonomiaren zailtasunetara jauzi egiten badugu, ezinbestean aipatu behar da naturarekiko harremana, oraindik ere maila orokorrean ebatzi gabe dagoena: Gizarte Ekonomiak, eta kooperatibismo klasikoak bereziki, gizarte antropozentrikoaren hazkunde-ereduaren gaitz berberak ditu eta naturarekiko duen erlazioa erauzketan eta suntsipenean oinarritzen da (Azkarraga & Altuna, 2013).

Gizarte Ekonomiako erakundeen ikuspegitik begiraten badugu ordea, gertuagotik, Jordi García Janék (2010) sei puntu aipatzen ditu, merkatu-logikak gailendutako eredu baten barruan agertzen diren zailtasunak, hain zuzen ere. Lehena kudeaketarekin erlazionatutakoa da, eta Gizarte Ekonomiako erakundeen kudeaketa sendotzeko beharra azpimarratzen du. Bigarrenik, kideen jarrera indibidualistak aipatzen dira, ikuspegi kolektibotik aldentzeko arriskua nabarmenduz. Hirugarren zailtasuna estuasun ekonomikoarekin lotuta dago, kapital propio txikia eta finantzazioa eskuartzeko ekonomia sozial eta solidarioak beste enpresekin alderatuz dituen estuasunak nabarmenduz. Laugarrenak autoestimua baxua eta alternatiba bat izatearen kontzientzia baxua jasotzen du; bosgarrenak gizarteak sektoreaz duen ezagutza eskasa; eta, azkenik, integrazio ekonomiko eta soziopolitiko txikia.

Eredua eta praktikez gaindi, beste zailtasun bat aipatzen du Garcia Janék (2010), egungo gizarte postmodernoaren erronketatik. Gizartea gero eta indibidualistagoa izan eta pertsonak bere ingurunearekiko deskonektatuagoak egon, (sozialki zein politikoki), ekintzailtza kolektiboko adibideak murrizteko arriskua ikusten du, eta horrek zuzenean eragiten die Gizarte Ekonomiako egitasmoei.

Etorkizuneko erronkez ari bagara, lehenik eta behin, aurrera begira zer begiradarekin begiratu nahi dugun erabaki beharrean gaudela azpimarratzen du Garcia Janék (2010), Gizarte Ekonomiak bere funtzioa zein izatea nahi duen, alegia. Hiru begirada proposatzen ditu: bata enfoke neoliberaletik eratorria, ekonomia dominantearen barruan Gizarte Ekonomia azpiekonomia bat bezala kontsideratzen duena; bigarrenak, ikuspegi sozialdemokratik Gizarte Ekonomia estatuaren kide kontsideratzen du, aliatu, gizarte kapitalistak sortzen dituen ezberdintasunak zuzentzera bideratua dagoena; hirugarrenak, aldiz, Gizarte Ekonomia sistema kapitalistaren alternatiba bezala proposatzen du, post-kapitalismoaren eredu bilakatu daitkeen eredu bidezkoago, demokratiko eta jasangarriago bat aurkeztuz.

Gizarte Ekonomiaren konpromiso politikoan sakontzeko beharra azpimarratzeko asmoarekin, Rodriguez eta Gavezek (2016) beren analisisa gaur egun somatzen den kooperatibagintza berritik egiten dute. Kooperatibagintza berri horrek estatuaren defizitaren aurrean jokatzen du, edota



ohiko langileen mugimendutik urrutiago dagoen ekintzailtza eredu bat du bere baitan (lanesku kualifikatua, unibertsitate ikasketak, lan profesionala). Eredu horretan, bereziki azpimarratzen da erronka moduan helburu bakarra ez izatea iraute ekonomikoa, baizik eta erraminta politiko bezala jokatzea ere.

Molde berri horietan, kooperatibismoaren hautu politikoa mantendu dadin (eta bideak eraturako profesionalizazioa eta isomorfismoa ekiditeko) honako proposamenak egiten dituzte Rodriguez eta Gavezek (2016): mugimendu sozial eta politikoekin lotu; jarduera ekonomikoa komunitate jakin baten beharretara bideratu, merkatuko erregimenaren baitan funtzionatzen ez duena; kontsideratzea kooperatibismo onena ez dela administrazio publikoak bete beharko lituzkeen zerbitzuak betetzen dituen; ez mugatzea jarduna elementu laboraletara, eta balio jakinetara, baizik eta su-jetu kolektiboaren eraikuntzara; eta, autoenplegua ez kontsideratzea arrazoi nagusi moduan, batez ere ekintzailtzeatik aldendu eta Gizarte Berrikuntzaren ikuspegitik aldentzeko.

#### 4. **Bien arteko alderaketa**

Aurreko ataletan ikusi dugunez, bi arloek hainbat desberdintasun erakusten dituzte. Motibazioari dagokionez, Gizarte Berrikuntzaren motibazioa ikuspegi sozial batekin erlazionatzen da, baita gizartearen erronkei elkarrekin erantzuteko beharrek. Gizarte Ekonomia aldiz, motibazio ekonomikoa batetik eratoritzen da, baliabide ekonomikoaren banaketa bidezkoago batekin.

Bi arloen definizioetara jotzen badugu, Gizarte Ekonomiak berrikuntza jasotzen du (idea berriak) eta prozesua ere jasotzen du. Gizarte Ekonomiak aldiz, bi adiera jasotzen ditu definizio mailan: erakunde mailakoa bata, eta begirada zabalagoa bestea, lurraldearen garapena ere barne biltzen duena.

Gaitasun eraldatzailearen kasuan, Gizarte Berrikuntzaren eragina areagotzeko anbizio kolektibo eta politikoago baten premia azaleratzen da, eta Gizarte Ekonomiaren kasuan, erakundeaz gaindi doan lurraldearen garapenarekiko konpromisoa.

Azkenik, erronkak bi arloetan azaleratzen dira. Gizarte Berrikuntzaren kasuan agertzen direnak arloaren beraren egonkortze eta zilegitasunarekin daude erlazionatuta. Gizarte Ekonomiak ekonomiako beste ikuspegi heterodoxoen begirada barneratzeko beharra erakusten du, baita eraldaketa bultzatzeko eskala areagotzearena.

Jarraian agertzen den taulan, bi markoen arteko alderaketa ikus dezakegu, modu sintetikoan.

	Gizarte Berrikuntza	Gizarte Ekonomia
1. Motibazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Arazo konplexuak</li> <li>. Krisia, eraginkortasuna</li> <li>. Berrikuntzaren adiera berria: soziala</li> <li>. Erraztatzaileak: elementu kultural eta sozialak, babes politikoa, mekanismo erraztatzaileak, espazio osagaiak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Ekonomiaren ulerkera ez erredukzionista</li> <li>. Elkartasunaren adiera berria</li> <li>. Mailak: mikroekonomikoa, meso-ekonomikoa, makroekonomikoa eta sistemikoa</li> <li>. Dimentsioak: ekonomikoa, politikoa eta ekologikoa.</li> </ul>
2. Definizioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Ideia berriak (produktu, zerbitzu eta ereduak)</li> <li>. Behar sozialak</li> <li>. Emaizta eta prozesua</li> <li>. Hiru begirada: enpresa, gizarte eraldaketa eta integratzailea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Oinarri juridikoa, erakunde ekonomikoa.</li> <li>. Begirada zabalagoa:</li> <li>. Dimentsioak: teorikoa, soziala eta erakunde mailakoa.</li> <li>. Lurraldearen garapena.</li> </ul>
3. Gaitasun eraldatzailea	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Ahalduntze kolektiboa</li> <li>. Anbizioa areagotu, maximalista, aldaketa sakonak sortu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Gizartea eta ekonomiaren uztarketa, gizarte eraldaketaren eragile</li> <li>. Eredu neoliberalaren alternatiba</li> <li>. Indartzeko: malgutasuna areagotu, lurraldetasuna, garapen komunitarioa.</li> </ul>
4. Erronka nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Finantzazioa eta eskalatzea</li> <li>. Gobernantza eta koordinazioa</li> <li>. Balioan jartzea</li> <li>. Gaitasunen garapena</li> <li>. Inpaktuaren neurketa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Naturarekiko harremana eta antropozentrismoa</li> <li>. Erakunde mailan: merkatu logika gaingiditu, kudeaketa sendotu, kapitala eta finantzazioa areagotu, kontzientzia baxua eta gizartearen ezagutza baxua.</li> </ul>

*Iturria:* Norberak egindakoa.

## Irudia 2

Bi markoen konparaketa-taula laburra

### 5. Adituen begirada

Gizarte Berrikuntzaren eta Gizarte Ekonomiaren markoetan kokatuta dauden zazpi adituen begirada jaso nahirik, marko bakoitzaren motibazioa, definizioa, gaitasun eraldatzailea eta erronken inguruko iritzia jaso nahi izan da. Horietaz gain, bi markoak elkar-elikatzeke elementuen inguru-

ruko ekarpena ere jaso da. Adituei elkarrizketa erdi.egituratuak egin zaizkie, eta ondoren, elkarrizketak Atlas.ti softwarearen bidez aztertu dira.

Atlas.ti azterketa kualitatiboetan datuak aztertzeko sortutako softwarea da; ikerketa kualitatiboko programen artean, mundu mailan erabilienetakoa. Testu- eta multimedia-datuak osatutako informazio-bolumen handiak prozesatu ahal ditu. Horrelako programei CAQDAS deitzen zaie (Computer Assisted Qualitative Data Analysis Systems-en akronimoa). ATLAS proiektuaren (1989-1992) testuinguruan sortu zen Atlas.ti, Thomas Muhr-ek garatutako prototipoaren bidez. Softwarearen oinarri metodologikoak teoria arrazoitua<sup>7</sup> (Grounded theory) eta edukiaren analisia<sup>8</sup> (Content analysis) osatzen dituzte. ATLAS.ti testuekin, audioekin eta argazkiekin lan egiteko gai da, eta ikerketa kualitatiboko metodologiari dagozkion lan eta prozedurak egitea errazten duten tresnak eskaintzen ditu: transkripzioa, kodetzea eta emaitzen irudikapen grafikoa (hala nola diagramazio-programak, edota sare edo mapa kontzeptualak egiteko berariazko tresnak). Funtzionalidade horiei esker, testuak segmentatu, iruzkinak kodetu eta ereduak aurkitu eta hipotesiak egiaztatzeak aukera ematen du.

Jarraian erantsitako taulan elkarrizketatuak, eta baita aditu bakoitzak bere burua non kokatzen duen ikus dezakegu:

Elkarrizketatua	Kokapena	Kokapena
Marian Diez Lopez	Ekonomian doktorea, REAS Euskadiko Batzordeko kide (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) 2012az geroztik, eta sareko lehendakaria 2016. urtetik.	Gizarte Ekonomia eta Solidarioa.
Gorka Espiau Idoiaga	Filosofian doktorea. «Agirre Lehendakaria Center for Social and Political Studies»-eko zuzendaria.	Gizarte Berrikuntza.
Naiara Goia Imaz	Telekomunikazio Ingeniarita. Arantzazulab Gizarte Berrikuntza laborategiko zuzendari nagusia	Gizarte Berrikuntzan, eta zehazki gobernantzaren berrikuntzan.

<sup>7</sup> Teoria arrazoitua azterketa-modu induktiboa da. Datuetan egindako murgiltze-lana abiapuntua du fenomeno bati buruzko teoria bat garatzeko.

<sup>8</sup> Edukiaren analisia komunikazio-modu ezberdinen (testua, irudiak edo audioa) ezaugarriak aztertu eta interpretatzeko erabiltzen den ikerketa-metodoa da. Edukia sistematikoki aztertzen du, ereduak, gaiak eta bestelako ezaugarriak identifikatu, eta azterketan oinarritutako inferentziak edo ondorioak atera ahal izateko.

Elkarrizketatua	Kokapena	Kokapena
Elena Herrarte Letona	Enpresen administrazioan lizentziaduna. Debagoiena 2030 ekimeneko koordinatzaile nagusia.	(Debagoiena 2030 ekimenaren kokapena) Metodologikoki Gizarte Berrikuntza, eta tradizioz Gizarte Ekonomiatik gertu.
Igor Ortega Sunsundegi	Soziologian doktorea. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Lanki kooperatibismoaren ikertegiko ikerketa arduraduna.	Gizarte Ekonomian, kooperatibismoa.
Eusebio Lasa Altuna	Ekonomian doktorea. GEZKI-ko, Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuko kidea.	Gizarte Ekonomia eta Gizarte Berrikuntza.
Beñat Irasuegi Ibarra	Kooperatibista eta sustatzaile Talaios kooperatiban eta Olatukoop Ekonomia Sozial Eraldatzaileko sarean.	Gizarte Ekonomia Eraldatzailea.

*Iturria:* Norberak egindakoa

### Irudia 3

#### Elkarrizketatuak

Jarraian, adituei egindako elkarrizketetatik erauzitako ondorio nagusiak jasotzen dira. Ondorio horiek jasotzeko orduan, adituek gai bakoitzarekin erlazionatzen zituzten kontzeptuetan jarri da arreta (egindako aipamenen bidez), gai bakoitzaren ulermenera hurbiltzeko helburuarekin. Aipamenak anonimoak dira, baina bakoitzaren ondoan, parentesi artean, aipua egin duen pertsona kokatzen den arloa gehitzen da (GB Gizarte Berrikuntza, edota GE Gizarte Ekonomia).

#### Motibazioa

Motibazioaren inguruan galdetzean, **eredu neoliberala gainditzea** bi markoen kasuan motibazio gisa aipatzen da. Gizarte Ekonomiaren kasuan eredu neoliberal gainditzea lanaren kontzepzio berri baten ideiarekin lotzen da, burujabetzarekin, gizartea ekonomiaren erdigunean jartzearekin. Gizarte Berrikuntzaren kasuan aldiz, eredu kapitalistaren aurrean eredu alternatibo bat eraikitzeko asmoarekin lotzen da. Ideia horrekin lotuta, **ikuspegi ekonomikoaren** kontzeptua ageri da Gizarte Ekonomiaren kasuan, hau da, Gizarte Ekonomia ekinbide ekonomikoan kokatzen dela.

Aldaketa sistema kapitalistaren garapen-eredu hori, ez? Pixka bat erabateko hazkundearekin lotu ahal den hori horri alternatiba jasangarriago bat, inklusiboagoa eta langileak zentroagoan langileak edo komunitatea bere horretan, zentroan jarriko duen eredu (GE).

Gizarte Ekonomiaren kasuan, **behar materialak asetzearekin** lotzen da motibazioa. Ez ordea Gizarte Berrikuntzaren kasuan: ongizate **krisiarekin** lotutako motibazioa aipatzen dute adituek, hau da, egun gauden fase ekonomikoak ongizate estatuaren krisia markatzen duela, eta bizi dugun krisi egoerak sortzen duela «beste modu batean» aritzeko beharra. Pare bat el-karrizketatuek Gizarte Berrikuntzaren kasuan **tradizioa** aipatzen dute, hau da, aurretik bazeudela Gizarte Berrikuntzako praktikak, gizarteak berak lideratutakoak, hainbat behar sozialei erantzuteko.

Nik uste dut Ekonomia Soziala segun eta lekua eta kontestua jatorri ezberdina dauka, eta, kasu gehienetan, da jatorri ideologiko bat. Esateko, dagoen estruktura ez dira justuak eta behar dugu beste sistema alternatibo bat martxan jarri demostratzeko alternatiba badagoela. Eta orduan, jartzen dugu martxan hori, ekimen horiek, demostratzeko hori. Beste kasu batzuetan, gurea bezalakoan, da jatorri operatibo bat (GB).

**Elkartasuna** ere bada Gizarte Ekonomiarekin adituek lotzen duten kontzeptua. Eta hori aipatzean Gizarte Ekonomia daukan gizarte begiratuari egiten diote erreferentzia.

Gizarte Berrikuntzaren kasuan, definizioa emateko orduan, zenbait el-karrizketatuk marko horren baitan dauden praktiken aniztasuna eta **kontzeptuaren beraren lausotasuna** jasotzen dute.

Neri inpresioa ematen dit, gizarte berrikuntzaren barruan, harrobi eta familia ezberdinak badaudela. Bada, pixka bat, sortu da horrelako kontzeptu kaxa zabal bat, non nik uste dut gauza asko sartzen direla hor barruan (GE).

Motibazioaren barruan el-karrizketetan agerian jartzen den beste gai bat **ideologiazioarena** da, batez ere Gizarte Ekonomiaz hitz egiten denean aipatzen den ideia da (Gizarte Ekonomia bilatzen duen eredu aldaketa zein kooperatibismoaren zati bati egiten zaion kritikarekin lotuta). Gizarte Berrikuntzan diharduten eragileek ildo honen harira aipatzen dute hautu politikoa badagoela, zenbait kasutan esplizitua ez izanik ere.

Gobernantzaren berrikuntzaz ari garenean, hautu politikoa argia da. Eta hor ez gara neutralak..., boterearen partekatzea, ez gara eredu kapitalistaz ari, zer gure nitxo delako harreman-ereduen eraldaketa. Baina hori guztiz politikoa da (GB).

## Definizioa

Bi markoen definizioa aipatzen denean, badaude pare bat elementu marko batekin maiztasun handiagoz aipatzen direnak. Hala nola, **autoeraketaren** kontzeptua (autogestioa, beharrei erantzuna emateko orduan autonomoki eratzeko gaitasuna) eta **barne-demokraziarena** (erakundeen barne-funtzionamenduan erabakiak hartzeko orduan dagoen berdintasuna) Gizarte Ekonomiaren kasuan gehiagotan aipatzen dira. Gizarte Berrikuntzaren kasuan aipatzen direnean, ezin ditugu hertsiki lotu motibazioarekin, izan ere, ideia horiek erronkekin Gizarte Berrikuntzaren erronkekin (autoeraketaren kasuan) eta elkar elikatzearekin (barne demokraziaren kasuan) erlazionatzen dira.

Aldiz, beste zenbait kontzeptu bi markoetan aipatzen dira. Horietako bat, aipatuena **komunitategintzarena** da (gehiagotan aipatzen da Gizarte Berrikuntzaren kasuan). Komunitategintza aipatzen denean, aipatzen da bai Gizarte Ekonomia eta baita Gizarte Berrikuntza ere komunitatearen ahultasun edo behar batetik jaiotzen direla, eta, komunitatea eratu eta ahalduntzeko asmoa dutela (nahiz eta norabideak desberdinak izan). Badago ñabardura bat ordea: Gizarte Berrikuntzaren kasuan komunitateaz hitz egiten denean zentzu zabalagoan egiten da (eragile desberdinak, publiko, pribatu edota komunitarioak kontuan hartuz), eta Gizarte Ekonomiaren kasuan pertsona talde batez ari da (erakunde baten inguruan eratzten dena, normalean).

Edozein gizarte erronka edo gizarte batek komunitatea garatzen laguntzen dieten tresna, metodologia eta ikuskera marko bat da, baina beti ere, elementu kultura erlazional humano horrek erdigunean izanda. Eta asko partehartze hori eta adimen kolektiboaren konektatze eta balioan jartze hori ba azpimarratzetik (GB).

Idea horrekin erlazionatzen da **pertsonak** erdigunean jartzearena. Bi markoetan aipatzen den ideia da.

Gizarte Berrikuntzaren kasuan, **partehartzea** bada maizago aipatzen den beste kontzeptu bat, demokraziarekin lotzen dena, eremu publikoaren gaineko erabakiekin. Nolabait bi markoek partekatzen dute partehartzearen kontzeptua, Gizarte Ekonomiaren kasuan barne-demokrazia, eta Gizarte Berrikuntzaren kasuan partehartzea orohar (demokraziaren ideiarekin eta eremu publikoaren gobernantzarekin lotuta).

Biek partekatzen duten gauza dela gizartearen zerbitzura egotea, partekatzen duten edo erlazionatzen diren beste motibazio bat izan daiteke harreman horizontalagoen sorrera, ezta? Iruditzen zait ekonomia eredu

horretan bilatzen den ereduari beste motatako harremanak sustatzen direla langileen eta enpresa-egituraren artean, eta normalean gizarte berrikuntzako prozesuetan harremanen eraldaketan, posizio bertikaletik horizontaletara egitea, hori bada bat. Eta gero, partekatzen duten beste motibazioa, ba adibidez kudeaketa partekatua, demokratizazioarena, berdintasunarena, nik uste dut, printzipioak partekatuak dira (GB).

**Elkartasuna** eta **erantzukizunaren** kontzeptuak ere aipatzen dira definizioaren osagarri gisa. Gizarte Ekonomiaren kasuan, erantzukizuna Gizarte Ekonomia Solidarioaren rolaekin lotuta eta erantzukizun pertsonal eta kolektiboarekin lotuta. Gizarte Berrikuntzaren kasuan aldiz, konpromisoarekin lotzen da erantzukizunaren ideia, konpromiso kolektiboarekin. Elkartasunaren ideia Gizarte Ekonomiarekin erlazionatzen da.

Azkenik, definizioan aipatzen den beste kontzeptu bat **tokiko konpromisoarena** da, lankidetzara edota interkooperazioarekin ideiarekin lotuta. Gizarte Ekonomiaren kasuan, tokiko konpromisoa eta interkooperazioa aipatzen dira makaldu ezin diren definizioaren elementu gisa, eta Gizarte Berrikuntzaren kasuan tokiko eragileekin egiten den elkarlanarekin lotzen da ideia.

Ekonomia sozialak salto egin behar du interkooperaziora, komunitatea, lurraldera orduan espazio komunitarioa indartzuz eta berrikuntza sozialak ere hori da, ez? txapela arima komunitarioa eta ekonomia sozialak behetik gorako espazio komunitario hori indartu (GE).

## Gaitasun eraldatzailea

Gaitasun eraldatzailearekin lotuta aipatzen diren ideia batzuk erronketan agertuko zaizkigu segidan. Hasteko, esan behar da gaitasun eraldatzailearen kasuan, elkarrizketatuek **eragin-mailen** arteko aldea somatzen dutela: Gizarte Ekonomia kokatzen dute maila mikroan, eta Gizarte Berrikuntza maila makroan (esparru ekonomikoaz harago).

Elkar-elikatzen dira berrikuntza sozial eraldatzaileak lan egiten duelako makroespazio batetik. Mikroespazioetara. Hau da, prozesu dialektikoetan, antolaketa maila desberdinetan, prestakuntza ideologikoan, zentzu zabalean. Eta berriz, ekonomia sozialak lan egiten du gehiago mikroespazietatik, makroespazietara. Unitate ekonomiko-sozial bat bakoitzaren demokrazia erradikalari eutsiz. Hasi, unitate ekonomiko sozial bakoitzetik (GB).

Eragin-mailaren ideiarekin lotuta, erronka konplexuen ideia aipatzen da, **erronka sozialei** heltzeko orduan Gizarte Berrikuntzak bilatzen duen konplexutasunaren ikuspegi berritzailea.

Aipatzen den beste ideia bat **eskalarena** da. Kasu horretan iritzi desberdinak daude elkarrizketatuen artean: batzuk gaitasun eraldatzailea lotzen dute hazkundearekin, gero eta pertsona gehiagotara iristeko aukerarekin. Beste batzuk ordea, hazkundearen ideia zalantzan jartzen dute eta eskala tokian eragitearekin erlazionatzen dute.

Bai, eztabaida horretan gaude eta ez dakit, baina hori da eztabaida. Badakigu, hipotesia da, praktika horiek sistematizatzen badira eta hobeto interkonektatzen badira, horregatik guk egun plataformaren logika erabiltzen dugu, lortzen baduzu hori hobeto konektatzea eta prozesua sistematizatzea horrek generatuko du inpaktu gehiago eta baita ere generatuko du logika propioa, ez dakit, errekursoak generatzeko dinamika horretan. Baina egia da oso adibide gutxi daudela demostratzeko bene-tan hori sistematizatu daitekeela eskala mailan eta epe luzean (GB).

Bestalde, berriz ere aipatzen da gaitasun eraldatzailean **elkartasunaren** kontzeptua. Kasu honetan, Gizarte Ekonomiarekin lotzen da, eta interkooperazioa eta Gizarte Ekonomia Solidarioak jokatzen duen paper eraldatzailearekin.

Gizarte Berrikuntzaren kasuan, beste hiru kontzeptu aipatzen dira gaitasun eraldatzailearekin lotuta: batetik, **lankidetzazko gobernantza** aipatzen da, lankidetzaren publiko-komunitarioarekin lotuta, eremu publikoan. Bestetik, **metodologia** aipatzen da, Gizarte Berrikuntzak moduetan egiten duen ekarpena, prozesuaren ikuspegia edota erremintak. Gizarte Ekonomiaren kasuan, aipamen bakarra dago lankidetzazko gobernantzarekin lotuta. Kasu horretan, erreferentzia egiten dio interesgarri ikusten delako aliantzen bidea jorratzeko, aukera gisa Gizarte Ekonomiarentzako. Metodologia aipatzen denean Gizarte Ekonomian, elkar elikatzekeko elementu gisa aipatzen da.

Iruditzen zait Euskal Herrian badagoela praktika maila oso altua bene-tan, kontzeptua lantzen duena, eta tresnak eta, ez? Nolabaiteko teknika oso-oso elaboratuak erabiltzen dituena, iruditzen zait, helburua edo zer gizarte bilatzen duen ez dela aipatzen, eta hor igual zuk aipatu duzun gauza bategatik, prozesuan bertan bilatzen delako oso ezberdinak diren eragile eta pertsonen inplikazioa, eta orduan helburu finala edo pixka bat tabu edo bihurtzen da kasu askotan (GE).



Azkenik, eztabaida sortzen duten bi kontzeptu nabarmentzen dira elkarrizketetan. Batetik, **berrikuntzaren** gaia dago. Batez ere, Gizarte Berrikuntzako eragileen ikuspegitik berrikuntza eraldaketarako elementu gisa kontsideratzen da, baina Gizarte Ekonomiako zenbait eragilek berrikuntza beraren esanahia jartzen dute auzitan.

Baina guk gure eskema horretan bereziki planteatzen dugu berrikuntza botere harremanetan ondasunaren banaketan eta eskema komunitarioan. Horregatik, inportantea da aurretik berrikuntza sozialaz hitz egiten dugunean, ondo definitzea zer berrikuntza den (GE).

Eztabaida sortzen duen beste kontzeptua, kritikoa, **botere-erlazioena** da. Gizarte Berrikuntzak botere-harremanetan eragin nahi duen heinean, benetako eraldaketa sortzeko horietan eragin behar du, eta, elkarrizketatu batzuen iritziz, hori ez da beti gertatzen. Botere-harreman horiek eraldatzeko lankidetzaz gain, gatazkaren aukera ere mahaigaineratzen da, Gizarte Berrikuntzaren kasuan bereziki. Gizarte Ekonomiaren kasuan, gutxiago azaleratzen da, eta ekonomiak gizartean erdigunean kokatzen denez, eredu berdina horrek botere erlazio orekatuago batean eragiten duela aipatzen da.

Askotan ikusita botere interesak daudela eta interes ekonomikoak daudela, bide eraginkorra da aurrez aurre adostasunetara iritsi, eta ezberdintasun sozial eta ekonomikoaren aurrean hori da bide egokiena, baina askotan badakigu, gauzak ez direla aldatzen interes ekonomiko handiak daudelako, botere korrelazio bat dagoelako, eta horregatik gaur egungo eredu hain desberdina da ekonomikoki, eta orduan, ba guk uste dugu, gatazka sortzea, ba tresna bat dela urratsak emateko eta berrikuntza sozial eraldatzaileak hemen aipatu ditugun bide horietan, termino horietan ere erabili behar ditu (GB).

## Erronkak

Erronketan, aurretik mahaigaineratutako ideia asko azaleratzen dira.

Gizarte Berrikuntzaren kasuan aipatzen den erronka nagusia benetako eraldaketan sakontzeko ideiarekin lotuta dago, edo aurreko atalean aipatzen den gaitasun eraldatzailearekin, **eredu neoliberal gaitasun** eta **ideologiazioan** sakontzearekin. Erronka batez ere **botere-erlazioetan** kokatzen da eta botere-erlazio horiek eraldatzeko ahalegina planteatzen da erronka gisa (eta, hori ahalbidetzeko **lankidetzazko gobernanzako** formula berriak garatzea).

Gizarte erronkei erantzun bat eman behar zaiela elkarlanean, potere harremanak kuestionatuz edo birplanteatuz (GB).

Lankidetzazko gobernantzaren praktika horiek **erantzukizun** partekatuarekin lotzen dira, herritar edota eragileengan erantzukizun partekatua garatzearekin.

Bestalde, ulertzen da Gizarte Berrikuntzak, alderdi erlazionaletik lan egitean aldaketak eragiteko epe luzeak behar dituela.

Y yo creo que cuando hablamos de innovación social y entendemos la innovación social desde esa perspectiva que yo te estaba diciendo más relacional, pues tenemos que tener la perspectiva de que los cambios van a ir muy poco a poco y realmente se van a ver transformaciones a medio o largo plazo (GE).

Bestalde, erronka gisa garrantzia ematen zaio **komunitategintza** indartzeari. Zenbaitetan, Gizarte Berrikuntzako praktikak oso eremu publikoarekin lotuta eta horren osagarri ikusten dira, eta komunitateari protagonismoa emateko beharra azpimarratzen da.

Bai, eta nik uste dut beste bidea izango litzateke komunitatearekin inplikaturako bideak eta garatzearena. Baina klaro hori bestelako baldintzak eta egitura bat behar du. Zu hasten zarenean komunitatearekin horrelako interbentzioa egiten, horrelako prozesu potenteek eskatzen dute intentsidade handiko prozesuak izatearena (GE).

Gizarte Ekonomiaren kasuan, aipatzen dira bere izpiritura bueltatu eta **barne-demokrazian** sakondu eta eraldaketaren helburuari eusteko erronka. Era berean, Gizarte Ekonomiako erakundeetatik harago doan **elkartasuna** edota interkooperazio bat garatzeko aukera aipatzen da erronka gisa, lankidetzazko zabalago batekin erlazionatzen dena, tokiko eraikuntzarekin eta lurraldeak izan ditzakeen beharren identifikazioarekin, **tokiko konpromisoarekin** eta baita eragile ez sozioekonomikoekin harremana izatearekin. Azken ideia hori erlazionatzen da aurretik aipaturako **eragin-mailekin**, nolabait aipatzen da erronka gisa Gizarte Ekonomiak eragin-maila zabalago batera salto egitea. Gizarte Berrikuntzako eragile batzuk ere bat egiten dute ideia honekin, eta, eraldaketa sustatzeko beste «munduekin» konektatuta egoteko beharra esplizitatzen dute.

Interkooperazioa. Askotan ulertu dena kooperatiben arteko elkartasuna. Guk ekonomia sozial eraldatzailatik eta tokiko garapen eraldatzailatik horri buelta bat ematen saiatzen ari gara ez gu bakarrik. Bada mundu

mailan geratzen det zerbait eta interkooperazioa beste eremuetara zabaldu nahi du, esan nahi dut, lurralde batean ematen diren, askotan garapen ekonomikoaren ikuspegitik, baina eraman daiteke beste esparruetara. Lankidetzaz hori interkooperazio bihurtzea, hau da, lurralde batean dauden eragileen, instituzionalak, publikoak, kooperatiboak, komunitarioak. Horien arteko lankidetzaz, baina zer da interkooperazioa da, lankidetzaz denboran irauteko pentsatua (GE).

Bada Gizarte Ekonomiaren kasurako aipatzen den beste erronka bat, Gizarte Berrikuntzako eragileen begiradatik, **berrikuntzan** sakontzearena, alegia. Beren iritziz, berrikuntzarik gabe sistema aldatzea ez da posible.

Izatez, gizartea jartzen duela zentroan, horrek, generatzen du aldaketa, hau da, zer sistema kapitalistak, ez du jartzen jendea edo erantzun sozialak zentroan. Eta izugarritzko kontribuzioa egiten du eraldaketa prozesuak eraikitzeko. Ezberdintasuna da, horrekin bakarrik ezin direla sistemak aldatu. Berrikuntzarik ez badago ezin da sistema aldatu. Orduan oso inportantea da bere aktibitateak generatzen den eraldaketarako, baina bere aktibitateak bakarrik, ezin du lortu eraldaketa prozesua (GB).

Bi markoen kasuan, **eskalarena** aipatzen da erronka gisa. Gizarte Ekonomiaren kasuan, praktiken txikitasuna aipatzen da erronka gisa, eta baita eragin ahal izateko pertsona, erakunde eta sare gehiago izateko erronka. Praktika txikien kasuan, biziraupenaren ideia aipatzen da erronka gisa, ekonomikoki sendoak ez diren ereduak izateko arriskua. Gizarte Berrikuntzaren kasuan aldiz, eskala areagotu eta inpaktua areagotzeko, praktikak lotzea aipatzen da erronka gisa.

**Ikusgarritasuna** edo **balioan jartzea** bi markoetatik aipatzen da ideia gisa erronka moduan.

Tradizionalek gizarte berrikuntzako prozesuei eta estrategiei ez zaie eman, batez ere erakunde nagusien partetik, beraiek, duten balioa, edo gaitasun eraldatzailea, hori ez da rekonozitua izan, ikusi besterik ez dago. Berrikuntza teknologikoko estrategian esparruan, zenbat baliabide, zenbat erakunde lerrokatu diren hor eta gizarte berrikuntza askotan ikusi da, bai, oso nitxoagoko zerbait, agian kolektibo zaugarri tradizionalekin lotua, edo, bueno, orduan, hori bada nik uste dut erronketako bat eta instituzionalizazioa baita ere hortik etorri daiteke (GB).

## Elkar elikatzeko elementuak

Bada, bi markoek elkar-elikatzeko dituzten aukeren gainean galde-tzean, lehenik eta behin, elkarguneak eta elkarrizketa partekatutak izatearen interesa aipatzen dute elkarrizketatuek.

Teknikoki, operatiboki, nik uste dut ez dagoela inolako arazorik alde-rantziz, konektatzeko, eta benetan, eta oso onuragarriagoa izango litza-teke mundu guztiarentzako, benetan lotura biek indartzea. Baina kul-turalki egia da mundu desberdinak direla. Eta askotan ez direla ondo ulertzen beraien artean. Ba tradizio bat, ekonomia sozialaren tradizioak eta daude, egiteko formak, lenguaiak, hainbat elementu. Eta normalean hori, nola borroka kulturala den, kultura bat saiatzen da bestea konben-zitzen... Eta seguraski erronka bat izango da kulturalki muga hori, ez bakarrik kooperatiboki, eztabaida hori ez da ondo estrukturatu (GB).

Bestetik, aipatzen da hainbat **balio** partekatzen direla, eta, hain zuzen ere, balioak direla edozer eraldaketaren erregaiak. Biek partekatzen dute balio komunitarioen ideia, lankidetzarena, parte hartzearena. Zenbait el-karrizketatuek Gizarte Ekonomiatik balioak (erantzukizuna eta elkartasu-naren balioak) Gizarte Berrikuntzarako balizko balio bezala lantzea propo-satzen dute.

Oinarri-oinarrizko balioetan ikusten ditut, ez dakit diren, oso antzera-koak, nik uste hor badagoela oinarrizko balioetan (GB).

(Gizarte Ekonomiako erantzukizun eta elkartasun balioez) Eta nik dut hori dela, paradigma honek daukan, bereizgarririk handiena. Eta ho-rrek justu laguntzen digula ez bakarrik enpresa bat irudikatzeko gunean, baizik eta balio ahal digula ere, nolabait ere, gizarte, gizarte alternatibak irudikatzeko onean (GE).

**Eragin-mailetan osagarritasunak** ikusten direnez, aipatzen da marko bakoitzak eragin dezakeela berean, Gizarte Ekonomiako erakundeak **era-gile** papera joka dezatela, eragileak harrobi eta dinamizatzaile izan daitez-keelarik, eta Gizarte Berrikuntzak proposatzen duen begiradatik eta in-terkooperazioa zentzu zabalean ulertuz, aliantza publiko, kooperatibo, komunitarioaren ardatza indartu daiteke.

La innovación social puede jugar un papel muy importante en cómo entendemos esa idea de la gobernanza público-comunitaria, cómo ha-cemos que los ciudadanos podamos intervenir más en espacios en los que habitualmente no participamos, que pueden ser desde la educación, desde la sanidad, desde tal... (GE).

Maila agian operatiboagoan, Gizarte Berrikuntzaren **metodologia**, erremintak proposatzen dira Gizarte Ekonomiara zabaltzeko arlo interesgarri gisa. Eta, kontrara, Gizarte Ekonomiatik Gizarte Berrikuntzara zabaltzeko, interesekoak ikusten dira ikuspegi eta praktika ekonomikoak, **autoeraketaren** bidetik.

Gizarte Berrikuntzan, oso ikuspegi soziala, edo hurbilpen soziala izan duten praktiketan baita ere nola txertatzen ditugu agian, eredu enpresarial, edo ekonomiko batean, tradizio gehiago izan duten ikuspegiak, estrategiak... (GE).

## 6. Azken gogoeta

Artikuluaren lehen zatiak bi markoetan sakondu eta horietan daudden korrante eta eztabaida nagusiak ezagutzeko oinarriak jarri ditu, zutabe kontzeptualak aurkeztu eta begirada edota posizio bat finkatzeko aukera emanez.

Oinarri horien baitan, azken gogoetarako hari mutur batzuk aurkeztu nahi dira. Hori egiteko, lehenik eta behin posizio-koordinatuak finkatzea ezinbestekoa da, azken gogoeta non kokatzen den ulertze aldera. Bada, posizioa Gizarte Berrikuntza eraldatzailean kokatzen da, gizarteko erronkei heltzeko lankidetzeta eta harreman berriak eraikitzeko asmoarekin jaiotzen dena: anbizio maila handiko intentzionalidade politikoa duena; eta botere-erlazioetan aldaketa bilatzen duena. Beste modu batean gauzak egin eta, hortaz, berrikuntza bilatzen duena bere norabidearen mesedetan (utilitarista eta politikoa aldi berean), ereduak eraldatuz, metodologiak berrituz eta proiektu berriak (produktu edota zerbitzu deitu) elkarlanean garatuz.

Era berean, Gizarte Ekonomiaren kasuan, ikuspegia eredu neoliberalaren aurrean alternatiba planteatu nahi duen dimentsio ekonomikoa, soziala eta politikoa duen Gizarte Ekonomia batean kokatzen da, barne-demokrazia, elkartasuna eta erantzukizunetik abiatuta, erakundetik harago doan tokiko konpromisoa, lurraldetasuna eta interkooperazio zabala gartzeko asmoa duena.

Artikuluaren zehar, zerrendatu dira Gizarte Berrikuntzaren eta Gizarte Ekonomiaren hutsuneak. Hutsune horien baitan, elkar elikatzeke duen aukeretatik, zenbait aurrerabide proposatzen dira segidan.

- **Ezezagutza eta mesfidantza gainditu**

Azpimarragarria da marko batean kokatzen diren adituek beste markoerekiko erakusten duten ezezagutza eta ezagutzeko interesa. Balioetan

gertu egonik ere, ezezagutzaz gain, zenbait kasutan mesfidantzak ere ageri dira. Hori gaintzeko elkarguneak behar dira. Gogoeta -espazio partekatua eratzeari interesgarria izan daiteke.

- **Gaitasun eraldatzailean sakontzeko elkarren praktikak baliatu**

Gizarte Ekonomiaren kasuan barne demokrazian sakontzeko beharra erronka gisa aipatzen da, eta Gizarte Berrikuntzako praktikek lagundu dezakete horretan (ahalduntze kolektiboa, deliberazio-sistemak, parte hartzearekin lotutako dinamikak...). Era berean, berrikuntzan sakontzeko (behin ulertuta eta partekatuta dagoela berrikuntzaren esanahia) Gizarte Berrikuntzaren metodologiak baliagarriak izan daitezke Gizarte Ekonomiako erakundeentzat.

Bestalde, Gizarte Berrikuntzako prozesuetan alderdi ekonomikoarekin lotutako ekimenak diseinatzeko orduan Gizarte Ekonomiako erakundeen printzipioak, eta egituratzean eta praktikatik duten eskarmentua inspiragarria izan daiteke (baita bestelako praktikak eta erremintak ere, finantza etikoak, adierazle-sistema alternatiboak eta abarrak barne).

- **Ideologizazioa indartu**

Gizarte Ekonomia eraldatzailearen begiradatik zenbait kasutan Gizarte Berrikuntzari «epeltasuna» egozten zaio, hautu politiko eza, sustatzen dituen lankidetzaren dinamiketan botere erlazioen eraldaketa egonkor bat bilatzen ez duela argudiatuta, edota sistema neoliberal ez duelako modu esplizituan zalantzan jartzen. Jakina da edozer eginda ere hautu politikoa badagoela, eta, edozein kasutan Gizarte Berrikuntzak hautu politikoa duela jakinda, Gizarte Berrikuntzako prozesuek, sortu nahi dituzten soluzio berriez gain (ikuspegi utilitarista), botere-erlaketan sakondu beharra du. Ez da nahikoa Gizarte Berrikuntzako prozesuek erlazioetan zein lankidetzaren harremanetan sakontzearekin, harreman horiek (botere-harremanak direnak, beti) eraldatzeko egiturazko aldaketak sustatzen ez badira.

- **Berrikuntzan sakondu**

Gizarte Berrikuntzak puntua jartzen du berrikuntzan, arazoei konponbidea emateko «soluzio» berriak diseinuan. Nolabait sakonean egongo litzatekeen hipotesia da arazo berriei soluzio berriei erantzun behar diegula, eta soluzio berriak esperimentatu behar direla. Bada, Gizarte Ekonomiatik ez da horren modu nabarian erabiltzen berrikuntzaren aldeko diskurtsoa. Ezinbestean berrikuntza bi markoetatik landu beharreko elementua izan daiteke. Batetik, Gizarte Ekonomia eraldatzaileak proposamen berriak, gizarteko beharrei erantzuteko modu berriak eskaini behar

ditu, eta, horietara iristeko bere berrikuntza-sistema (eta agian berrikuntza bera nola ulertzen duen) definitu beharko luke.

Gizarte Berrikuntzak ere izan dezake berrikuntzan sakontzeko premia: maiz ideia berriak, soluzio berriak eragile desberdinen arteko lankidetzatik eratortzen dira, eta aurretik ditugun ideietatik datoz. Aukerarik al legoke sormen-prozesuak aktibatzeko Gizarte Berrikuntzako prozesuetan?

### • **Eragina areagotu**

Eragin-mailetan, osagarri ikusten dira Gizarte Berrikuntza eta Gizarte Ekonomia. Bada, Gizarte Ekonomia maila mikroagoan eragiten duela ulertzen da, eta Gizarte Berrikuntzak aldiz, maila makroagoan. Gizarte Ekonomiatik ordea, maila makroagoan eragiteko aukera eta beharra somatzen da, interkooperazioaren ideiatik jaiotzen den tokiko askotariko eragileen lankidetzaren bidetik. Hori da hain zuzen ere, Gizarte Berrikuntzaren joko-zelaia.

Eraginaren ideiarekin lotuta, badira ageri diren bi alderdi: hazkunderena eta eskalarena. Gizarte Ekonomia eraldatzaileak ez hazkunderaren bidea proposatzen du (edo, behintzat hazkunderena zalantzan jartzen du), eta Gizarte Berrikuntzak aldiz, inpaktua areagotzeko eskalaren beharra azalartzen du. Bata zein bestea, funtsean eraginaz ari dira. Eta, eraldaketa horri begira eragina areagotzeko behar komuna dute. Behar horri erantzuteko, interesgarria izan daiteke eragina areagotzeko estrategia partekatuak diseinatzea: tokiko garapenerako lankidetzazko gobernantza eta interkooperazioko formulak elkarrekin diseinatzea.

Eragin horretan, lankidetzazko gobernantzarekin batera (botere-erlazioak eraldatzeko bokazioa duena), komunitategintza indartzeko formulak eta ekimenen arteko loturak bilatzeak eragina areagotzeko bidea zabaldu dezake.

### **Bibliografia**

- Ayob, N., Teasdale, S., & Fagan, K. (2016). How Social Innovation ‘Came to Be’: Tracing the Evolution of a Contested Concept. *Journal of Social Policy*, 45(4), 635–653. <https://doi.org/10.1017/S004727941600009X>
- Azkarraga, J. & Altuna, L. (2013). Cooperativismo, economía solidaria y paradigma ecológico. Una aproximación Conceptual, *Ecología Política*, 44, pp. 33-41, Madrid
- Bouchard, M. J., & Lévesque, B. (2010). Économie sociale et innovation. L’approche de la régulation, au coeur de la constructon québécoise de l’économie sociale. *Chaire de recherche en économie sociale*.

- Chaves Ávila, R., & Monzón Campos, J. L. (2017). CIRIEC-International. Evolución reciente de la Economía Social en la Unión Europea. Comité Económico y Social Europeo. <https://www.eesc.europa.eu/sites/default/files/files/qe-04-17-875-es-n.pdf>
- Chaves Ávila, R., & Monzón Campos, J. L. (2018). La economía social ante los paradigmas económicos emergentes: Innovación social, economía colaborativa, economía circular, responsabilidad social empresarial, economía del bien común, empresa social y economía solidaria. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 93, 5. <https://doi.org/10.7203/CIRIEC-E.93.12901>
- ELGA. (1992). The Measurement of Scientific and Technological activities. Oslo Manual, European Commission. <https://www.oecd.org/science/innno/2367614.pdf>
- ELGA (2011). Fostering Innovation to Address Social Challenges. Workshop proceedings. OECD Innovation Strategy. DOI: 10.1016/j.techfore.2015.08.011. *r sector, ISSN 1886-0400*, 36.
- Espiau, G. (2017). Nuevas tendencias de la innovación social. *Revista española del tercer sector, ISSN 1886-0400*, 36.
- Europar Batzordea (2013). Guía de la Innovación social, Regional and Urban Policy, Bruselas (2-16).
- García-Flores, V., & Palma Martos, L. (2019). Innovación social: Factores claves para su desarrollo en los territorios. *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 97, 245. <https://doi.org/10.7203/CIRIEC-E.97.14148>
- García Jané, J. (2010): La economía solidaria: sustento y esperanza, in *A crise actual e as respostas da economia solidaria*, ACEESA, Coingra. [https://base.socioeco.org/docs/revista\\_n2\\_miolo.pdf](https://base.socioeco.org/docs/revista_n2_miolo.pdf)
- Hubert, A. (2010). Empowering people, driving change: Social innovation in the European Union (24).
- Jimenez, J. (2016). Avances y desafíos de la Economía Social y Solidaria en Ecuador. Economía social y solidaria: conceptos, prácticas y políticas públicas. *Universidad del País Vasco*, (109–139).
- Lasa, E. (2018). Berrikuntza sozial eraldatzailea: Gipuzkoako lurralde historikoko gizarte zerbitzuen gobernantzari buruzko azterketa. *Doktorego-tesia. UPV/EHU*.
- Moulaert, F., Maccallum, D. & Hillier (2013). Social innovation: intuition, precept, concept. The International Handbook on Social Innovation: collective action, social learning and transdisciplinary research, 13, DOI: 10.4337/9781849809986.00011
- Mulgan, G. (2006). The process of social innovation, *Innovations: technology, governance, globalization*, 1(2), 145-162, DOI: 10.1162/itgg.2006.1.2.145.
- Mulgan, G., Tucker, S., Ali, R., & Sanders, B. (2007). Social innovation: What it is, why it matters and how it can be accelerated ([3rd ed.]). Young Foundation (20).



- Murray, R., Caulier-Grice, J., & Mulgan, G. (2010). *The Open Book of Social Innovation*. The Young Foundation.
- OECD/Eurostat (2018), *Oslo Manual 2018: Guidelines for Collecting, Reporting and Using Data on Innovation*, 4th Edition, The Measurement of Scientific, Technological and Innovation Activities, OECD. Publishing, Paris/Eurostat, Luxembourg.
- Rodríguez, E. & Gámez D. (2016). Más allá del cooperativismo, más allá de la economía social. Publicado en Periódico Diagonal. <https://www.diagonalperiodico.net/blogs/funda/mas-alla-del-cooperativismo-mas-alla-la-economia-social.html>
- Pérez de Mendiguren, J. C., & Etxezarreta, E. (2014). Sobre el concepto de Economía Social y solidaria: Aproximaciones desde Europa y América Latina. *Revista de Economía Mundial*, 40, (123–144).
- Richez-Battesti, N., Petrella, F., & Vallade, D. (2012). L'innovation sociale, une notion aux usages pluriels: Quels enjeux et défis pour l'analyse?: *Innovations*, n°38(2), 15–36. <https://doi.org/10.3917/inno.038.0015battes>
- Sanchís, J.R. & Campos, V. (2008) La innovación social en la empresa. El caso de las cooperativas y de las empresas de Economía Social en España, *Economía Industrial*, 368, (187-196).
- Zurbano, M. (2008). *Gobernanza e innovación social. El caso de las políticas públicas en materia de ciencia y tecnología en Euskadi*.